

Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara

Koldo Ulibarri Orueta

E-mail: koldo.ulibarri@gmail.com

K. Mitxelena Katedraren III. biltzarra

Zer egin jatorri ezezaguneko testu bat geografikoki kokatzeko?

- 1958an Mitxelenak erantzun egokia eman zigun Landuccioiren hiztegiaren ikerketarekin
 - Testu barneko argudioak konbinatu
 - Ondoko lanen eredu: Lakarra 1996, Ulibarri 2010...
- Metodologia esplizituki azaltzea eta bere inguruko gogoeta faltan botatzen dugu

Zer egin jatorri ezezaguneko testu bat geografikoki kokatzeko?

- Jakin min hutsa ez da, testua lekukotasun giza hobeto erabili ahal izateko baino
- Arabako ipar-mendebaldeko *corpus*-ean maiz:
 - Mendietaren testuak
 - *Viva Jesus* dotrina
 - XVIII. mendeko sermoitegia
 - *Bula Ineffabilis*-aren Arabako itzulpena
 - Lezamari buruzko gutuna
- J. P. Ulibarriren lanen hizkera

Dialektologia Historikoa

■ Diakronia eta sinkronia dikotomia

■ Banaketa espaziala eta denborazkoa

- Hizkuntzalaritza autonomoa (sinkronikoa) — *Ez* denbora *ezta* espazioa
- Hizkuntzalaritza historikoa — Denbora
- Dialektologia / Hizkuntza geografia — Espazioa
- Dialektologia historikoa — Denbora *eta* espazioa.

(Williamson 2004: 100).

■ Helburu orokorra: - Dialektoen muga zaharrak aztertzea

- Muga horien isoglosek pairaturiko aldaketa diakronikoa erakutsi
- gaur egungo dialektoetara nola heldu garen argitu

(Euskal) Dialektologia historikoaren arazoak

- *Corpus*-aren arazoak:
 - Berantiarra: XVI. mendean hasten da
 - Asimetrikoa: ez ditugu garai eta leku guztiak lekukotuak
 - Monotematikoa: ezaugarri asko ez zaizkigu agertzen
- Euskal dialekto zaharren ezagutzan gutxi aurreratu dugu

Metodoa (I): Filologiaren beharra

- Testuak dira lekukoak: testuak interpretatzen jakin behar
 - Euskalaritzan testu asko aztertu gabe daude
- Edizioak baloratzeko gauza izateko
 - Ediziogileak *egilearen azken nahia* islatzen du
 - Interesgarriagoa izan dakiguke *egileak egin zuena*
 - Ediziogilearentzat akatsa dena
 - Egileak berak egindako zuzenketak

Metodoa (I): Filologia

- Basauriko idazle batek
 - *adesquidetasunera* > *adisquidetasunera* (arg. zuzendua)
 - *Sazerdotiaeri* > *sazerdotiai* (arg. zuzendua)
- Halabaina:
 - *adeskide*-ren kasuan Abandoko J. P. Ulibarrik berresten du
 - *-iaeri* Basauriko *-airi* atzizkiaren hastapena dateke

Metodoa (II) Teknika

- Testuen arteko konparaketa: *'fit'-technique*
 - “Aingura testuak”: datu estralinguistikoen bidez kokatutako testuak
 - Garaiko testuak, denbora-urkila zenbat eta hertsiago hobe
 - Inguruko hizkeretako testuak
 - Testu zaharragoak eta (batez ere) berriagoak
 - Garaiko testuek utzitako hutsuneak betetzeko
 - Beste maila batean, estrapolazioa kontuz erabiliz
 - Adibidez: Capanagaren *amagaña* vs. *amagana* (egungo Durangon)

Metodoa (III): Materialen erabilera

- Hizkera testuan hasi eta bukatzen da
 - Testuan duguna bakarrik lekukotu dezakegu ziurtasunez
 - Ezaugarria zenbaki bidez kontrolatzeko aukera
 - Adb: VJ -ren txistukarien neutraltzea

$-z \#$ testuingurua		$-z + V$ testuingurua	
ζ	s	ζ	s
3	9	21	2

Metodoa (III): Materialen erabilera

- Berrikuntzak, arkaismoak eta hautuak
 - Berrikuntzak
 - Berrikuntza konpartituak biderik seguruen testuak lotzeko
 - Arkaismoak
 - Berrikuntzekin duten lehia ikusi
 - Hautuak
 - Gure ezagutzaren araberako datuak
- Orduko hiztunen ikuspegitik baloratu behar ditugu ezaugarriok

Metodoa (IV): Pausuak

- Kokapen historikoa
 - Testuaren kronologia erlatiboa inporta zaigu
 - Datu zaharragoen eta berriagoen erabilera ziurtatzeko
 - Egoera diakronikoa baliagarri kokapen geografikorako
- Kokapen geografikoa
 - Ikuspegi *sinkronikoa*: garai horretako egoera definitzen gaude
 - Arkaismoen egoera, berrikuntzak konpartituak...
- *Realia* eta *generoaren soziologia*
 - Ez dute balio erabakigarriarik, aurreko hipotesiak sendotzeko

Arazoak: literatur hizkuntza

- Hiru ataletan bana ditzakegu testuak
 - Testu xume fidagarriak
 - Testu ez hain fidagarriak
 - Testu erlatiboki diatopikoak
 - Testuari eta egileari buruzko daturik gehien bildu erlatibotasuna kontrolatzeko
- Garai edota hizkera guztietan literatur eragina ez da bera

Arazoak: literatur hizkuntza

- Arazoa “konpontzeko” bide posibleak
 - Lan filologikoa:
 - Testuak darabilen grafia sistemaren azterketa
 - Egileak egindako zuzenketak
 - *‘fit’-teknika*-ren aldaera bat:
 - Testuaren “literaturtasuna” aztertzeko
 - “Angura testuak”: testu xume fidagarriak eta orduko literatur lanak

Amaitzeko

- Gure eskarmentuaren emaitza baino ez
 - Pairatu ditugun arazo eta duden agerpena
 - Findu beharreko lana da
 - Lan gehiago eginez
 - Erronka berrietara zabaldu behar
- Testu-sare geroz eta estuagoa lor dezakegu
 - Testigantza berriak hobeto kokatzeko lagungarri
 - Dialekto zaharren ezagutza aberastu

ESKERRIK ASKO

Mitxelena Katedraren III. Biltzarra (2012-X-09)